

ttüpi-ttapa

1994.eko ekainak 30 • 137. zenbakia

Elkarrizketa

**Javier Igoa, Lesakako Musika
Bandaren zuzendaria**



**ERROTEI SEGIDA
BILATU BEHAR ZAIE**



¡AI ZORIONTSUAK DENARI
FELICES FIESTAS A TODOS

BETI ZUEKIN
ZUEN KUTXA

CAJA DE AHORROS DE NAVARRA

NAFARROAKO AUPREZKI KUTXA

DATUAK.....

❖ 49 urteko lesakarra, bederatzi urtetan hasi zen Lesakako Musika Bandan tronboia jotzen.

❖ Tronpeta izan du beti gustoko instrumentua eta Donostiako Kontserbatorioan aritu zen hau ikasten.

❖ 1982tik, Lesakako Musika Banda berriz osatu zenetik, bertako zuzendaria da, baita 'Izar' txarangakoa ere.

❖ Lanbidez, Kalitatezko Ingenieritzako jefea da Laminaciones-en.

❖ Musikaz gain, koadroak margotzea – sariak irabaziak ditu – eta bizikletan ibiltzea dira bere afiziorik gustokoenak.

TESTUA ETA ARGAZKIA
AITOR AROZENA

Javier IGOA:

«Musika banda mantentzea zaila bada ere, kategoria ematen du»

HISTORIA LUZEA IZANA DUTE INGURU HONETAKO MUSIKA BANDEK...

Lesakan betikoa izan da musika banda, baina 1970. urtean desagertu zen eta 1982an berreskuratu genuen, lehengo beterranoen arrimoan gazteak sartuz. Garai batean, Lesakan bi banda omen zeuden, bat elizarena eta bertzea Herriko Etxearena. Ingu-ruko herrietan ere ba-zeuden, Elizondon, Donezteben hagitz ona, Etxalarren, Beran...

NOLA IKUSTEN DUZU BANDEN EBO- LUZIOA?

Azken urteetan, gero eta jende guttiago dago bandan sartua. Gero eta zailagoa da musika banda bat mantentzea, baina, halere, kategoria haundia ematen dio herri bati. Garai batean jendea labrantzan aritzen zen eta lana bukatzerakoan libre zeuden musika bandan aritze-ko, bertzerik ez baitze- goen. Orain berriz, gazteak kanpora joaten dira ikastera, langileek turnoak izaten dituzte... gero eta jende guttiago dago.

ETA HORREK ZER SOLUZIO DU?

► “Nik ez dut inoiz lehengo musika kendu izan nahi, Lesakako musikari tarte bat utzi baizik, Sanfermin eguna hemengo gauzak erakusteko eguna baita niretzat”



Datorren urterako zerbait pentsatzen ari naiz. Banda mantentzen saiatuko naiz, bertzela pekatu mortala izanen zen. Asuntoa nola izandu den, nola dagoen eta nola heldu den ikusita planteamendua aldatu behar da, ez dago bertze erremediorik... Pausu

bat eman behar da.

TXARANGAN ERE FUERTE ZABILTZATE...

Txarangan hagitz kalitate ona dago. Denak bandan aritutakoak dira eta nahiz gazteak izan, badute hamabi urteko esperientzia.

ZURE PIEZA BAT SARTU ETA POLEMIKA HAUNDIA IZAN ZEN DUELA BI URTEKO SANFERMINETAN...

Sanfermin eguna, nolabait hemengo 'produktuak' erakusteko eguna da. Dantzarriak, dantza, musika banda, txistulariak...

dena Lesakakoa da. Nere ustez, lastima da gure musikarekin ez aritzea, Lesakan hagitz autore onak baititugu, batzuk bizi direnak gainera. Nik ez dut inoiz lehengo musika hori kendu izan nahi, Lesakako musikari tarte bat utzi baizik. Eta ez nereari, hori ez zait inporta. Horregatik, eta omenaldi bezala, iaz eta aurren ere seguraski, Santiago Irigoienek 'Hiria' jo genuen lehen aldiz, berak zuzenduta, baita Pepito Iantziren 'Lesakari' ere.

ERROTAK FUNTZIONATZEN MANTENTZEA BEHARREZKOA DA


Erreka ttikien bazterretan altxatuak, berriki arte errota ugari zeuden nonnahi. Gaur egun ere hor daude, bainan ia denak geldirik eta batzuk erdi eroriak. Zonako herri guztiak kontutan hartuta, gaur egun bizpahiru dira fundamentuz lanean ari direnak. Horregatik, arras desagertzen utzi nahi ez badira behintzat, zutik daudenei aterabideak bilatzen hasteko tenorea da.

Idea bat egiteko, mende honen hasieran eta bakarrik Baztanen, 29 errota kontatu zituen Vidal Perez de Villarreal. Garai hartan garia, garagarra edo artoa xehetzen zuten, bai azindei emateko eta baita taloak egiteko ere. Geroztik, urteak pasatu ahala, pixkanaka pixkanaka gutitzen joan da erroten kopurua. Baztango datuekin segituz, duela 18 urte, 1976an alegia, mende hasierako hogeitabederatzi hoietatik zortzira etorria zen

normalki lanean ari ziren erroten kopurua eta gaur egun, ez omen dago ezta bakar bat ere maiztasunez lanean ari dena; Erratzukoa noiz behinka.

BIZPAHIRU DAUDE MARTXAN



Zonako herri guziak kontutan hartuta, bizpahiru baino ez dira gaur egun martxan dauden errota; Zubietakoa, Etxalarkoa eta Berakoa. Izan badaude bertze batzuk, oraindik arras noiz-behinka martxan jartzen direnak edo berriki arte aritu direnak; Sarakoa, Goizue-



takoa, Erratzukoa... Gainerako guziak fisikoki ere desagertzeko bidean daude.

BEHEKO ARGAZKIETAN AMAIURKO ERROTAKO JOXE ETXEBERRIA IRIN ZAKUA GARRAIATZEN. AZPIAN PEDRO JUAN BIDEKAIN (EZKERREKOA) ERRATZUKO ERROTA ZAINA.

HIRUGARREN ARGAZKIAN, BAZTAN ETA ETXALAR ARTEAN ZEGOEN 'INFERNUKO ERROTA'RENA DA. ERROTA HAU DUELA PARE BAT URTE ERORI ZEN.



TESTUA


JOXEMANUEL IRIGOIEN

HISTORIA PIXKA BAT

Historian barrena, errotek funtzio garrantzitsua bete dute gure herriotan eta harat honat ugari izanak dira hauen inguruan. Errate baterako, hasiera batean errota erregearenak izaten ziren. Gero, herrietako jauntxoak eta udalak bihurtu ziren erroten jabe, eta berrikiago, XIX. mendeko desamortizazio legearen ondorioz batez ere, esku pribatueta pasatuz joan dira, kaso batzutan portzionisten eskutara eta bertze batzutan familia batenak izatera. Orain arte bete dituzten funtzioei dagokionez, aipatu behar da irina egiteaz aparte, elektrizitatea edo argindarra sortzeko ere erabili izan direla mende honetan.


FUNTZIONATZEN SEGITZEKOTAN, ATERABIDEAK BILATU BEHAR

Errota batzuk lurrera erortzeko bidea hasia dute aspaldi. Halere, badaude bertze batzuk oraindik arras eskutik joan gabeak daudenak, eta nolabait funtzionatzen mantentzekotan, aterabide berriak bilatzen hasi beharko dute. Aterabide hoietako bat dugu, adibidez, Iturengo piszi-faktoria. Dena dela, badaude



GOIAN ZUBIE-TAKO ERROTAN ATERITAKO ARGAZKIA.

ESKUINEAN, ELIZONDOKO KALISTRO ERROTARENA IZANDAKO ERROTARRIA.



bertze gisa bateko aterabideak ere. Adibide bat; momentu honetan Donostiako Belardendetara eta Ogi labe artesa-naletara, Bartzelonatik ari dira ekartzen behar duten arto-irin biologikoa. Hortaz, hauxe bera izaten ahal da bide hoietako bat; bertako artoarekin egitea irina eta gero hirietako merkatariei sal-tzea produktu natural gisa. Horretaz gain, gaur egungo dinamo berriek, garai batekoekin konparatuz, probetxu haundiagoa ateratzen diote ur-zurrutek sortzen duten indarrari. Zentzu horretan, argindarra sortzea da bertze aterabide bat, bertzerik ez bada, etxerako haina.

Bizirik dagoen museo baten aterabidea ere kontutan hartzekoa da. Are gehiago turismoari halako bultzada ematen ari zaion garaiotan.

ZAHARBERRITZEKO DIRULAGUNTZAK

Herriarenak diren errotek aukera haundiagoak dituzte. Dena dela, pribatuentzat ere badaude laguntza posibilitateak. Hoberena, Nafarroako kasoan behintzat, 'Principe de Viana' erakundera jotzea da, eta bertan, kaso bakoi-tzaren berezitasunak kontutan hartuz negoziatzea. ■

«Errota berriek abanzu haundiagoa dute, baina ez dute harri errotek bezala gozatzen irina»



Bitoriano MARIEZKURRENA
Berako Gaiakoerrota errotaia

■ Gero eta errota gutiagoda martxan. Nola ikusten duzu egoera?

□ Nik Beran lau errota eza-gutu ditut, gurea eta bertze hiru. Gaur egun bakarrik gurea gelditzen da eta hau ere noizbehinka jartzen dugu martxan. Lehen ezagutukatu dut neguan hamabortz egunez ere gelditu gabe laneanaritzea. Orain uda partean, batez ere etxerako xehetzen dugu, ura ere gutiago izaten baita, eta neguan bai, orduan lan gehixeago izaten da beti. Artoa ere bustixeagoa izaten baldin

bada, xehetzerakoan erro-tzaiak beti gainean egon behar izaten du, artoa irindua ateri beharrean harri tartean 'zizareak' egiten baitzaizkio. Neguan batez ere, bertze herrietatik etortzen da jendea zerbait behar baldin badu, baina orain dela urte batzuen aldean aisa jende gutiago.

■ Eta segidarik izanen ote du?

□ Niri lehendik heldu zait eta gero ere etxekoek honetan segitzea polita izanen zen. Orain semea aritzen zait harriak pikatzen ederki aski. Ja-

kina da, lan hontatik baka-rrik ez dagoela bizibidea ateratzerik, baina semeak badu bere lana eta hau beti eskura izanen du segitzeko.

■ Harri-errotetan xehetutako arto irinak ez omen du konparaziorik ere bertze errotetan xehetutakoarekin?

□ Halaxe da. Bertze errota berri hoiek harri errotek baino abanzu haundiagoa dute baina ez dute harri errotek bezala gozatzen irina, ahaleginak egitea ere, beti zakarragoa uzten dute.

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 5.800 ALE

ARGITARATZAILEA: TTIPI-TTAPA KE
HERRIKO ETXEO PLAZA, 1
31780 BERA
TFNOA.: 63 11 88
FAXA: 63 12 91

uzendaria: Joxemanuel Iri-
dien. **Publizitatea:** Miren Kar-
ele Tolosa. **Erredakzioa:** Ai-
ror Arozena, Joxemanuel Iri-
dien. **Erredakzio taldea:** Pe-
o Apezetxea, Juainas Paul,
ristina Boan, Bittori Telletxea.
erriemaileak: Joseba Azpi-
z, Esteban Arozena, Juana
ari Saizar, Ainhoa Mutuberra,
an Isasi, Txema Aldabe, Pello
txegia, Txema Urroz, Patxi
txandorena, Daniel Martirena,
abel Maia, Josune Etxebeste,
ablo Mendiburu, Joseba Iga-
bide, Alizia Olaizola, Margari
txenike, Koro Irazoki, Mixel
erendiain, Jacqueline, Marta
urria, Oskar Txoperena, Al-
erto Sansiñena, Pello Apeze-
tea, Aitor Arozena, Kristina
oan. **Kolaboratzaileak:** EHNE
afarroa, Patxi Lasa, Josetxo
usperregi.

primategia: Gertu (Oñati).
ttiipi-ttapak ez du bere gain
artzen derrigorrez, aldizkarian
dierazitako erranen eta eritzien
rantzukizunik

arakunde Laguntzaileak:
era, Leitza, Goizueta, Areso,
aztan, Urdazubi, Zugarramur-
eta Sarako udalak, Bor-
irietako Euskara Mankomuni-
tea, Malerrekako Zerbitzu
ankomunitatea...



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEKO GAIA

Selektibitatearen feria

Ez da ezer galtzen selektibitatea egiten saiatzeagatik



Begoña MITXEO
Saldiasiko ikaslea

Egunotan ikas-
le askoren kez-
ka eta buru-
haustea izan da selektibita-
tea. Gure aurtengo ikasturtea
ez da izan besteetan bezala
ekaineko azterketak nola edo
hala gainditzea bakarrik.
Goragoko helburu baten
menpean pasatu dugu urtea,
hasieratik 'selektibitate' hitza
baino ez bait genuen entzu-
ten. Nire iritziz, ez da ezer
galtzen hau egiten saiatzear-
gatik; alderantziz, ordurarte
emandako gauza orokor as-
koren errepaso bat egiten du
eta gainditzea lortuz gero,
askoz ere hobe. Aurten ikusi
dudanaren ondorioz, euska-
rak jasan duen arazo larria
azpimarratu nahi nuke. Ez
zaizue lotsagarria iduritzen
BTI adarretik gindoazen na-
fartar guztien artean hiru
bakarrik izatea guztia euska-
raz egitea eskatu genuenak?
Horrelaxe izan da, eta oke-
rrago oraindik, ez baitugu
geneuzkan hiru hautagaieta-
tik bat besterik euskaratzea
lortu. Hortaz, euskubide ho-
rri eutsi behar zaio.

Ez da bidezkoa hiru egunetan dena jokatzea



Karmele REKONDO
Lesakako ikaslea

Selektibitatea
egin badut ere,
oraindik ez
daukat oso argi benetan zer
den. Behintzat badakit ez
daukala gehiegizko zentzu-
rik berau egiteak. Hainbat
urte ikasten eman ondotik,
ez da bidezkoa hiru egune-
tan dena jokatzea. nere us-
tez, institutueta urte osoan
irakasleek egiten dizkiguten
azterketak nahikoa dira
ikasleonek gaitasuna frogatze-
ko. Bertzalde, selektibitatea
egitekotan, hobeki litzateke
behar bezala egitea, eta ez
aurten egon diren 'gorabe-
herekin', hainbatek ukatu
badu ere. Bukatzeko, sala-
tzekoa da euskal adarreko
ikasleok jasan dugun diskri-
minazioa: batetik IEEko
ikasleen azken bi frogak
gazteleraz zeudelako, eta
bertzetik, UBIko azterkete-
tan arlo bakoitzari zegokion
irakasle faltagatik. Beraz,
gauza pila dira aldatu behar
direnak.

Zentruen prestigioa neurtzeko garrantzia hartzen ari da



Jeanie TELLETXEA
Irakaslea Lekarozen

Gaur egun se-
lektibitateak
ikasleen etorki-
zuna bideratzen du, zenbait
unibertsitateen atea itxiz
edo irekiz; hau dela eta, urte
osoko lanaren helburu bi-
hurtzen dira frogak hauek.
Ohizko zentrutik kanpo egi-
ten duten lehen azterketa da
eta honexegatik bakarrik,
errendimendua baxuagoa
izaten da, azterketari dioten
beldurragatik, azterketa be-
raren zailtasunagatik baino.
Bertzalde, euskararen trata-
mendua salatzen da, Erre-
formako selektibitatean zen-
bait azterketa itzuli gabe egin
behar izan baitute eta gure
frogetan ikusi da ez diotela
garrantzi haundirik ematen.
Ezin dugu ahanzi institutu
baten prestigioa neurtzeko
hartzen ari duen garrantzia.
Badirudi zentru baten kalita-
tea gaindituen portzentaiak
determinatzen duela. Halere,
aurten gertatutakoak, por-
tzentai altua prestakuntza
onagatik edo galderak eza-
gutzen dituztelako diren
pentsa erazten dizu.



Legia 11 - 63 06 64 BERA

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIGINTZA
OPARIAK
BURDIN TRESNERIA
Altzate, 5 Tfnoa: 630083 BERA

GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

SAROBÉ
okindegia



SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

BOTA BERTSOA

IRAKURLEAK MINTZO

**Sanferminak****Xabier TERREROS**Bortzirietako Bertso Eskolakoa
Neurria: Hamarreko handia

*Uztailan seia iristear da
nik pozik daukat barrena
Sanfermin hauek ditugu eta
urteko gauza onena
leben eguna uztailak seian
eta bamarran azkena
abaztu ezazu zure tristura
abaztu zazu zure pena
lesakarrontzat hau dugulako
egunikan baundiena.*

*Alde batetik triste nago ni
ta beste batetik alai
gure herritik urruti daude
gutxienean bi anai
Patrizio ta Iñaki ez ditut
nik aipatuko nolanahi
hemen ez gara gu geldituko
geldirikan beraien zai
juerga egiteko prest gaude baina
borrokarako ere bai.*

**Berako
suhiltzaile
boluntarioen
oharra**

Berako suhiltzaile boluntariook, Josu Unsiñ Pabolleta lankidearen atxilotetaren aurrean, zera adierazi nahi dugu:

- Berak bizi duen sufrimendu aldi honetan, berekiko solidaritate eta laguntza.

- Publikoaren aurrean Josu Unsiñek bere herriarekiko burututako lana errekonozitzea, beti modu desinteresatu eta altruistan aritu dela gogoratuz.

- Guretzat Josu Unsiñ ez da herriaren etsaia, komunikabide gehienek dioten bezalaxe, guztiz kontrakoa baizik.

- Estatuko Segurtasun indarrek egun hauetan zehar biztanleriaren artean sortu duten beldur giroa gogorki salatu.

- Gure Herriarekiko errespetua eskatzen dugu, eta hori, gaur egun ezagutzen dugun Estatu polizial eta errepresiboaren bidez ez da lortzen ahal, elkarizketa eta elkar ulertzearekin bidez baizik.

JOSU GOIA ETXEBERRIA ETA
BERTZE 18 SINADURA GEHIAGO
ENA.- 72.628.394

**Iritzi publikoari
jakinarazpena
Lekarozko
Institutuko
gertaeraz**

Gure semeak diren Iñaki Lareo, Hector Reguera eta Sergio Mindegia sexu gehiegikeria eta tratu txarrak burutu dituztela dioten gaizki erranen aitzineran, aipatutako ikasle hauen amak garen heinean eta Baztan Harana Institutuko Eskola Kontseiluaren erabakia ez dela batere zuzena izan pentsatuz, publiko egin nahi ditugu bere egunean ustez erasotua izana zen Miren Agurtzane Vidarteketa bere amak sinatu zituzten adierazpenak.

Adierazpen hoietan, gure semeek ez ziotela Miren Agurtzane eraso eta golperik eman erraten dute. Izan ere, ikaskide bati burutako egin izana baino ez diete leporatzen ahal. Ez dugu gertaera hori inola ere justifikatu nahi, baina uste dugu, halere, bertze zigor klase bat eman behar zitzaiela, are gehiago gure semeek egindakoaz adierazi zuten damua kontutan hartzen bada.

Ezarritako zigorra berrikusia izan zedin, bere garaian aipatutako papera Baztan

Harana Institutuko Eskola Kontseiluari eman zitzaion, baina hauek ez zioten inolako kasorik egin.

Guzti honengatik jo dugu TTIPI-TTAPARA, idatzi hauei ahalik eta difusiorik handiena emateko eta horrela gure semei buruz dabilen gaizki erran guziak isilarazteko, nahiz eta gure semei eta familei honez gero egin zaion kaltea ez dagoen jada moldatzerik.

IÑAKI LAREO, HECTOR
REGUERA ETA SERGIO
MINDEGIAREN AMAK

Karabantxeletik

Norberari gertatzen zaionean ohartzen da bat zenbateraino eskertzen den lau pareta hauen artean hartzen diren telegramak eta kartak. Horrexegatik eskerrak eman nahi dizkiet hemendik Bera eta Lesakako HBri, bi herri hauek Amnistiaren Aldeko Batzordekideei, Baztan Bidasoaldeko KASi, Lesakako JARRAlri, Berako Asanbladari eta orohar beren laguntza eskeini didaten guztiei. Eskerrik asko eta segi aurrera.

Karabantxel, 94ko ekaina.

Josu UNSIÑ

**ARTEKARI
TALDEA**

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

LESAKA:

• Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

• Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L., Tfnoa: 17 55 40
Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

**LESAKA**



Diario de Navarra 94-VI-20

«Finalean funtsezkoa da baldintza fisikorik hoberenetan egotea».

Iñaki ERRANDONEA

Pilotaria

Diario de Navarra 94-VI-20

«Beti Gazte barnean eramaten den zerbait da. Pertsona bakoitzarengan bagitz errotua dago, 50 urte

baitaramazki Lesakan lanean».

Jose Emilio DEL RIO

Beti Gazteko lehendakaria
Diario de Navarra 94-VI-22

«Erremontearen etorkizuna Koteto Ezkurran dago.

Guztia dauka».

Patxi ETXEBERRIA

Doneztebeko erremontelaria
Egin 94-VI-16

◆ Zer iruditzen zaizu apez berriak etortzea?

❖ Ongi, bokazioa badute ongi etorriak.

◆ Apeza zaharrak edo gazteak?

❖ Apeza zaharrak, gazte izpirituarekin.

◆ Zer eskeintzen du denda ttikiak?

❖ Bezeroak ezagunak direnez, kalitatea.

◆ Oraingo bestak edo lehengoak?

❖ Lehengoak, plazetan ziren eta jendeak ongi pasatzen zuen, orain tabernetan.

◆ Musika, Beran edo Altzaten?

❖ Berako plazak bere enkantua du, baina gaztedia ostatu inguruan ibiltzen da.

◆ Siesta egin edo 'kulebroiak' ikusi?

❖ Ez siesta, ez 'kulebroiak', terrazako loreak moldatu.

◆ Emakumeak, etxean edo lanean?

❖ Dirua dagoenean etxean, beharra dagoenean lanean.

◆ Zer iruditzen zaizkizu egiten ari diren obrak?

❖ Ongi, saneamendua beharrezkoa dugu. Nahiz eta motel xamar egin ez da hainbertzerako izan.

◆ Igandetan, paseatzea edo etxean geratzea?

❖ Paseatzea, etxean gelditzea triste da.

◆ Gizonek etxeko lanak egin behar dituzte?

❖ Ideal, bai zaharrak eta bai gazteak.

◆ Lorerik edo landarerik gustokoena?

❖ Loretan larrosa eta landaretan gardenia.



Tere SAN MIGUEL

Berako Herriko Etxeko Plazako dendaria

EGUR - LANAK

ZURGINDEGIA

- SUKALDE MOBLEAK
- ATE ARRUNTAK eta SEGURTASUNEZKOAK
- ESKAILERAK, SOLAIRUARTEAK eta TEILATUAK
- OHIZKO TARIMAK eta FLOTANTEAK
- MOBLEAK NEURRIRA
- PARETAN SARTZEKO ARMARIOAK
- SUKALDE eta ELKARTEETARAKO MAHAIK
- KALITATE ONENEN EGURREZKO LEIHOAK
- LEIHO MIXTOAK:
 - Aluminioa + egurra (haritza edo sapely)



ERAKUSKETA:

Altzate karrika, **BERA** • Tfnoa: 948-630117 (Arratsaldez bakarrik)



Udalak ahobatez onartu zuen 'azken egunotako errepresioari buruzko mozioa'

Herritar ugari bildu zen udal-batzarrera

KRISTINA BOAN

Berako Amnistiaren Aldeko Batzordearen mozioa ohobatez onartu zuten batzarrean zeuden udalkideek. Mozioan, hiru puntu ageri ziren; batetik, Josu berehala libra dezatela eskatzea, bigarrenik, inkomunikatua egon den bitartean Josuk sufritu dituen tratatu eta torturak salatzea, eta aldi berean, 'lege antiterrorista' indargabetzea. Azkenik, egunotako errepresioaren ondorioak sufritu dituztenekin elkartasuna agertzea onartu zuen udalak.

Alebinak txapelak

XX. Eskolarteko Pilota Txapelketa irabazi zuten Alebin mailan Errandonea eta Zubietak Huarte eta Bruguñaren kontra (18-5). Nafarroako Federazioak antolatua zen eta Nafarroa guziko eskolen artean jokatu zen Labrit pilotalekuan.



Pintura ikastaroan parte hartu duten gaztetxoek dira argazkikoak. Denetara 50 gazte inguru aritu dira Kika Sastre irakaslearekin.



Joseba Martikorena Txikagor dago sukaldari praktiketan

Munduko Futbol Txapelketan sukaldari

Hogei urteko berratar honek, aurtur akautuko ditu sukaldari ikasketak. Bitartean, Sukaldari Eskolako bertze hamabi lagunekin eta bi irakasleekin, Txikagora joateko aukeratua izan da, han ospatzen den Munduko Futbol Txapelketa dela

eta. Bertan praktikak egin eta gainera Euskadi munduari erakusten saiatuko dira. Egunean 300 bat otordu prestatu eta serbitzen dituzte eta futbola ikusteko denbora gutti dute. Hala ere, esperientzia polita omen da.

ttipi-flash

- ❖ **Selektibitatea**
Iaz bezalaxe, Toki Ona Institututik selektibitate frogetara aurkeztu ziren guztiak (13) aprobatu egin dute. Institutu honek bidaltzen duen bigarren promozioa izan da.
- ❖ **Oxford-era**
Matthieu Orillard Gorriak Nafarroako Gobernuak ikasketak ertainetan banatzen dituen sarietako bat bereganatu du. Hori dela eta, Oxforden hilabete bat pasatuko du.



- ❖ **PP garaile**
Europako hauteskundeetan PPk 339 botu atera zituen, HBk 334, PSOEk 260, Eak 184, PNvk 92 eta IUk 84.
- ❖ **Argazki erakusketa**
'Argazkilari Euskaldunak' erakusketa uztailaren 3a arte Kultur Etxean.



KIROLAK ZELA

Altzate 6, Tfnoa: 63 05 98

BERA

Errekalde ostatua

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630259 - BERA



© 631076 • BERA

B
BIDASOA
GARBIKETAK

Servicios de Limpieza
BIDASOA, S.L.

© 630557 • BERA

OKANE

Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA

Lesaka

Xabier Igoa eta Ana Agirretxe sanferminetako kartel eta azal lehiaketan irabazleak

Hogeitamabortzina mila pezeta jasoko dute

AITOR AROZENA

Aurtengo Sanferminetako kartel lehiaketaren lehen saria (35.000 pezeta) Xabier Igoak eskuratu du eta bigarren saria (15.000 pezeta) bere aita Javier Igoak.

Programaren portadatik ikusiko dugun lanari dagokionez, Ana Agirretxek egin auzan da, berak lortu baitu 35.000 pezeta lehen saria. Bigarren saria (25.000 pezeta) Javier Igoaren eskuetara joan da lehiaketa honetan ere.

Ongi pasatu heldu den astean.



Urrezko Ezteiak egin dituzten senar-emazteak omendu zituzten Jubilatuen egunean. Lesakan, Mariano Errazkin-Francisca Otxoteko, Jose Portu-Manuela lantzi, Jose M^a Maritxalar-Joaquina Goñi, Miguel Pikabea-Carmen Larralde, Jesus Alvarez-Rosalía Martinez eta Joaquín Lain-Primi del Río senar-emazteek 50 urte bete dituzte ezkondu zirenetik

Beti Gazte elkartearen egoitza berria inauguratu zen

Ekainaren 19an inauguratu zen Beti Gazte elkartearen Alondigako lehen pisuaren egoitza berria. Goizeko ekitaldian ondotik, Kasinon bazkaria izan zen eta bazkalondoa aurtengo kiroltasunaren sariak banatu ziren

talde ezberdinen artean. Honetaz gain, talde nagusiak erregionaleko azpitxapeladunaren kopa jaso zuen eta Jose Ignacio Goia 'Gofi'k federazioko langileen plaka bat jaso zuen, azken urteotan egin dako lanarengatik.

Jesus Mari Calvo seigarren Pariseko Kamarero laisterketan

Jesus Mari Calvo lesakarra seigarren gelditu zen Pariseko kamarero laisterketan. Kontutan hartu behar da 5.000 partehartzaile izan zituela proba honen eta hamar lehendabizikoek, heldu den urtean Australian egi-

nen den mundu txapelketarako txartela eskuratu dute. Jesus Mari erran digunez, "pixko bat gehiago entrenatuta hiru lehendabizikoen artean sartzen ahal naiz, irabazletik denbora guttiara ailegatu bainintzen".

ttipi-flash

Nafarroako

I. trikitixa txapelketan burutu da larunbat honetan. Ekitaldi honetan Lesakako bikote bat izan genuen, Jone eta Joxe Mari Elgorriaga.

Pisina berriak

martxan paratu zituzten ekainaren 10ean. Inaugurazioan, udaleko ordezkariekin batera Nafarroako Gobernuak Ongizate sailko kontseilaria egon zen.

San Fermin

jubilatu elkarteak, afaria ospatuko du sanferminetako ezkonduen egunean, arratsko 9etan lokalean. Boletoak bertan salgai daude 1.800 pezeta uztailaren 6a arte.

Baserrietako

bideak moldatzeko hainbat kamioikada materiale banatu da azken asteotan.

ARRANO

OSTATUA

Legarra - **LESAKA**

«U S O A»

NEKAZARI KOOPERATIBA

Ganaduarentzat pentsurik egokiena

Tfnoa: 63 52 14

ETXALAR

LORA DENDA

TXIRULA

Bitirio

627542


bitxikeriak • opariak • eskulangintza

BEREAU

jatetxea

Lesakako Bidegurutzean

Tfnoa: 637382 - **LESAKA**



LEGARRA

• PAPERTEGIA • TABAKOAK •

• LIBURUAK • OPARIAK •

ZERBITZUAK

☞ Fax Publikoa

☞ Enkuadernazioak

☞ Inprenta lanak • fotokopiak

☞ **%25eko** deskuentoa diska, kasette eta liburuetan

Legarra 9, ☎ 637030 - **LESAKA**



Donamaria, Legasa eta Sunbillara joan dira Gasna lehiaketako sariak

Altzata elkarteak antolatutako lehiaketa honetako herritarrenuzako saria berriz, Basateko Bordara

PELLO ETA ALBERTO

22 gasnak parte hartu dute aurtengo Altzata Gasna Lehiaketan: Urdazubi, Amaiur, Arizkun, Elbetea, Gaztelu (2), Donamaria, Urroz, Leitza, Sunbilla, Legasa, Arantza, Bera eta Etxalarkoek (9). Sarituak honako hauek izan dira: Donamariako Jose Gabriel Amigorena, Legasako Lantzibi gasnategia eta Sunbilla Lizun gasnategia, lehenengo, bigarren eta hirugarren sariak. Herritarrentzako saria Basateko Bordako Isidro Ariztegik eraman du, berriz ere.

Haurren Eguna

Ekainaren 19ko eguerdian, 7. Lehiaketako ipuin sarituak entzun ahal izan genituen,

idazleek irakurriak. Zortzi izan baziren ere irakurriak, sarituak denak izan ziren, 54 hain zuzen ere. Ez zen hori soilik izan, ordea, egun osoan ikusgai egon baitzen Landagain eskolan burututako zenbait lan. Ez dakigu herritar aunitzek ikusi ziotuen baina azpimarraztekoa dela uste dugu haurren eskulanean edertasuna. Bazkalondoko antzerki saioak borobildu zuen eguna.



EKAITZA CAFE

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Lagunekin elkartzeko toki egokia

Tfa: 948 - 627547
Plaza Berria 13 - LESAKA

ALBAR TETXEA JATETXEA

HARAGI ETA ARRAINETA
ESPEZIALIZATUA

Erreserbak egiteko deitu 627637 Ora

Antoiu 26 • LESAKA

ORDOKI ALTZARIAK

Estilo guztietako mobleak



ERAKUSKETAK: Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26

SALMENTAK: Plaza Zaharra 27 Tfnoa: 637034 - LESAKA

..Igantzi..

Eguraldiak lagunduta, giro ederra San Juan egunean

Martxan dago herriko pala txapelketa

OSKAR TXOPERENA

Aurten ez digu huts egin eguraldiak San Juan egun inguruan. Udako giroa izan dugu nagusi, beroegia egia erranda, baina, aproposa antolatutako ekitaldiak aitzinera eraman ahal izateko. Bezperatik hasi zen besta, auzo gehienetan egin baitzuten bere sutxoa. Halere, Antxontxeberriko soroan egiten dena da tradizioz gehien duena. Jende multzo polita bildu zen bertan gaua, ilargi bete eta guzi, ezin hobea baitzen. Aurten akordeolaria ere izan zen besta borobiltzeko.

Bertzalde, aspaldiko urtetan adineko jendea eskeintzen diote igantziarrek San Juan sua. Goizean San Juan



Ekainaren 11n ezkondu ziren Iñaki Iriberekoa eta Kontxi, Kanarias aldera egin dute bidaia eta Irunen biziko dira. Biharamonean, jendeak ez zuen interesez hartu Europako hauteskundeak

Arg.: OSKAR

Xarrera joan, meza entzun eta lagunekin solasalditxo bat egin ondotik, Biltokiko lokaletara bildu ziren gure jubilatutak bazkaltzera. Ondotik betekada arintzeko Gregorio Mitxelenarekin akautu

zuten eguna. Igandean ere bazen zer ikusirik, haurren eguna izan baitzen. Arratsaldean, margo eta eskulan erakusketa, joku, berendu eta hainbertze gauza dibertigarritz gozatu ahal izan zuten.

❖ **Pala txapelketa** hasia da. Bikote ugari eman du izena bi maietan asteburuetan jokatuko diren partiduetan parte hartzeko. Fimalak berriz, Berako besta inguruan jokatuko dira.

❖ **Abesbatzak** urte guziko lanen emaitza eskeini zuen ekainaren 18ko emanaldian. Halere, jende falta adierazi zuten aurkezpenean, parte hartu nahi duen guziari eskuak zabalduz.

BILBON IKASLEEN EGOITZA
(94) 4161732

ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Boda eta banketeak ematen dira

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 **BERA**

BOAN TAILERRA

CITROEN Banatzailea

KOTXE BERRIEN

ERAKUSKETA ETA SALMENTA

Herriko Etxeko Plaza - BERA



IÑAKI ITURRIA

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Instalazio zaharren berritzeak

PORTERO AUTOMATIKOAK

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Jauregieta 12
© 635028 - 635246
31760 ETXALAR

Curtidores 5 - 1. ezk.
© (943) 61 24 24
20300 IRUN



HERRIKO OSTATUA ETXALAR

JATETXEA

Dagoneko zabalik dago Etxalarko plaza, ostatu eta jatetxe berria

© 635290 • ETXALAR



Berako pizsinara joateko autobusa paratu du Guraso Elkarteak

Uztailaren 4tik 29ra egunero abiatuko da goizeko hamarrak eta laurdenetan

MARTA ITURRIA

Berako pizsinarako autobusa anttolatu du eskolako guraso elkarteak. Momentuz, 40 bat haur apuntatu dira, bai bertan igeriketa ikastaroak hartzeko, baita beren kabuz pizsinaz disfrutatzeko ere. Autobusa 10,15etan abiatuko da Arantzatik eta buelta 12,45etan Bera-tik, egunero, uztailaren 4tik 29ra.

Guraso elkarteak banatu dituen arauetan, batipat hauek agertzen dira: ile luzedunek gorroa eraman beharko dute beti bezaila, monitorerik gabe dloazenak eta igeri egitea ez dakitenak, ezin izanen dira pizsina lhaundira sartu. Monitorerik gabe

Ander Agesta
eta Rafa
Errandonea
pilotariek
Irurtzungo
pilota txapel-
keta irabazi
zuten kadete
mailan



doazen haur tikiak norbait beharko dute beraietaz arduratzeko eta azkenik, aparte joaten direnek autobusa 250 pezeta ordaindu beharko dute joan-etorria.

Futbito taldea Lesakako txapelketan

Lesakako futbito txapelketan hiru partidu irabazi eta bat enpatatu zuten Arantza izenarekin ibili den bertako futbito taldeak.

Halere, lehen fasean bertze talde batekin berdin gelditu zen eta desenpatean 7-4 galdu zuten eta ezin izan zuten finalerdietan sartu.

Kadeteak ez ziren finalean sartu

Eskolako futbito taldea, kadete mailako mutilek ezin izan zuten Nafarroako Jolas kirol txapelketako finalera ailegatu. Finalerdietan 6-2 galdu zuten Redin A taldearen kontra Iruñan eta Arantzako partiduan ere galdu zuten. Halere, kontutan hartu behar da Iruñekoak Nafarroako talde one-na dela.

Bertzalde, txapelketa on hau ospatzeko edo, futbito talde hone-tako koadrillak Piri-neoak barna trabesia egiteko asmoa du. Uz-tailaren 1ean abiatuko dira Isabatik Pantico-sarako mendi ibilaldia egin asmoz.

B RADIO
BIDASOA

- ✓ TELEBISTA, BIDEOA, HI-FI, ELEKTROGAILUAK...
- ✓ SUKALDE MOBLEAK
- ✓ «CANAL +» BANATZAILEA

EZTIEGARA PASEALEKUA 14 • BERA • Tfnoa: 630377

BEINTZAKO OSTATUA

Tfnoa: 45 00 14



BEINTZA LABAIEN



Hamahiru emakumek parte hartu dute formakuntza ikastaroan

Bertzalde, bortzehun eta hirurogei plazako camping-a egiten ari dira Zubizargaina inguruan



Emakumeen erranetan, formakuntza ikastaroa oso interesgarria izan da



Heldu den Aste Santurako zabaldu nahi den camping-ak 560 pertsonendako lekua izanen omen du

IXABEL ETA JOSUNE

'Formación de la mujer (Futura 94)' delako emakumeen formakuntzarako ikastaroa ekainaren 22an bukatu zen afari batekin.

Ikastaro honetan hamahiru emakume elkartu ziren. Bere pro-

blematikaren inguruan eta hau soluzionatzeko dauden bideetat (formakuntza, batez ere) solastu ziren luze eta zabal.

Azkenean, gustora agertzen ziren emakumeak eta erraten zuten, "arras interesgarria iruditu zaigu eta aunitz ikasi dugu".

Camping-a egiten ari dira Zubizargainako Ariztigainean

Camping bategiten ari dira Sunbilla, zehazki errateko Zubizargaineko Ariztigainean. Camping honen bultzatzailea den Jesus Mari Arretxeak, camping-a za-

baltzeko udalaren lizentzia lortua du dagoeneko. Gaur egun, proiektu honen bigarren fasea egiten ari dira, 18 milioi pezetako aurrekontuarekin. Camping-ak bor-

tzehun eta hirurogei pertsonendako lekua izanen omen du eta Jesus Mari Arretxeak dioenez, "heldu den urteko Aste Santurako irekitzea espero dugu".



GAZTANDEGIA
Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda
Tfnoa: 45 08 62
SUNBILLA

Mari Cruz
LENTZERIA

Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - DONEZTEBE



TELLETXEA MOBLEAK

Moble erakusketa haundia

- ☐ Edozein klase eta neurriko altzariak egiten ditugu.
- ☐ Haritz, gereziondo, gaztainondo eta pinuzkoak.
- ☐ Armario enpotratuak, ate korredera edo normalakin.

Koltxoia aldatzeko aukera berezia aprobetxa ezazu.

1. kalitateko koltxoiak oso prezio interesgarrietan

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - DONEZTEBE

Doneztebe

Herri kirol jaialdi bikaina larunbat honetarako

Ortzegunean berriz, Urrezko Ezteiak eta larogeitabortz urte betetzen dituztenak omendu zituen Arkupeak elkarteak

TXEMA ETA KARMELO

Larunbat honetan, bestetako azken txanpan sartuak, herri kirola jaialdi ederra izanen da arratsaldeko 5,30etatik aitzinera.

Lehenengo proban, Mindegia aitasemeak, Etxeberria eta Larretxearen kontra neuruko dira. Ondotik, Telletxea doneztebarra Jaunarena zubietarren kontra arituko da. Biek lan ezberdinak egin beharko dituzte. Herri kirol jaialdi hau bukatzeko, Iñaki Perurena harrijasotzaile leitzarrek 250 kiloko harriarekin saio bat egingen du, esku bakararekin.

Bertzalde, goizetik XVII. Malerrekako txirindulari proba egingen da.



Arkupeak elkarteak 'laugarren adinekoak' omenduko ditu

Urrezko Ezteiak egindakoak omenduko dituzte

Ortzegun honetan, jubilatuen eguna ospatzen da besten barrenean. Hau dela eta, Arkupeak elkarteak, 85 urte bete dituztenak eta

Urrezko Ezteiak ospatzen dituztenak omenduko ditu. Meza Iruñeko artzapezpikuak emanen du eta herri bazkaria eskolako pi-

lotalekuan izanen da. Ondotik, Erramun Martikorena, Montaña y Ribera eta Amaia Zubiriaren kantu emaldia.


ttipi-flash

Lapurrak

sartu dira Ameztia jatetxean eta El Café ostatuan. Azken ostatu honetatik 120.000 pezeta eraman omen dituzte gibelaldeko leihotik sartuta.

Margo erakusketa

burutu da ekainaren 11 eta 12an Donezteboko zineman. Bertan Jontxu Irastorza irundarra eta Esther Fernandez doneztebarraren pintura lanak izan dira ikusgai. Guztira, 30-35 bat kuadro erakutsi dituzte bi margolari hauek eta jende dexente izan da ikusten.



SOULE

GURUTZE eta HILARRIAK

☎ 45 30 38 ARIZKUN • ☎ 12 35 72 IRUÑA

FUNERARIA ZERBITZUAK
DONEZTEBEn



MALDAERREKA, S. L.

Egunaren 24 ORDUTAN
zure esku gaituzu.
ZERBITZU GUZIAK EGITEN DIRA
Tfnoa: 637404

BELARRA Kafetegia

Plater konbinatuak

Ameztia 3, Tf.: 45 03 06 - DONEZTEBE



AMEZTIA
Jatetxea - Hostala

Espezialitatea euskal
sukaldaritzan eta pintxoetan
Tf: 450028 - DONEZTEBE

Saldiasko karrikak itxura berritzen ari dira

Azpiroz-Saralegi enpresakoak aritu dira saneamendu tuboak aldatzen

TTIPI-TTAPA

Duela pare bat hilabete hasi ziren Azpiroz-Saralegi enpresako langileak Saldiasko karriketan obrakegiten eta dagoeneko bukatuak dituzte lanak. Desagueak aldatu eta tuberia berriak jartzen aritu dira. Halere, dena ona izanzen denik ezin erran, orain arte ez zegoen ur kontadorea ere paratu baitute.

Okindegi berria

Olasokoak okindegi berria egin dute. Orain arte bezala, etxe-ko ogia ('cabezonak') egiten segituko dute, baina horretaz aparte opilak, bolloak, etab... egiteko beste labea ere paratu dute. Baina ez uste artisau estiloa al-



Narbarteko sarreran semaforoaren berri ematen duen kartelak ez du Euskararen Legea betetzen

Argazkia: KARMELE

datuko dutenik, lehenagoko ogi goxogoxoak segituko baitu. Panaderiko nagusiak esaten duen bezala "pena izanzen litzake horrelako gauz goxoa

desegitea".

Bertzalde, lau etxe berri egin dituztela aipatu behar da. Etxeak hustutzea baino hobea da noski, berriak egitea.

San Juan bestakezin aipatu gabe utzi, umore ederrean joan bai-zaizkigu azken aste-buru honetan. Eguraldi beroak ere, animoak pizten lagundu zuen.

Narbarteko sarreran semaforoak paratu dituzte

Azken urteotan gertatutako istripu ugariei nolabaiteko irtenbidea eman asmoz, gehiegizko abiadura zoazenean gorri jartzen diren semaforoak paratu dituzte Narbarteko sarreretan. Honetaz gain, abiadura motel-tzeko batxe ttiki batzuk ere paratu dituzte. Herritar gehienak saihasbidea egitea nahi badute ere, momentuz ez da soluzio txarra. Halere, argazkian ageri den bezala, seinaleak erdara hutssez egin dituzte.



• OTORDUAK •
• LOGELAK •

Tfnoa: 450793

ETXANDI TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN • Tfnoa: 45 04 91



BAZTAN BIDASABO

**LANGILE
ABERTZALEEN
BATZORDEAK**

Errota zar 5, behea
31780 BERA

Tfnoa. 63 06 70
Faxa. 63 06 70

LANGILERIAREN INDARRA!!



ORQUIDEA

Alergia Probak
Gaindituak.
% 100ean Perfumerik
Gabe

Colon P., 28
☎ (943) 62 42 20
IRUN



Pentekostes egunean besta ederra egin zuten Zubietan

San Juan bezperan ere, gazte mordoxka bildu zen sutondoan afari goxo batean

AINHOA MUTUBERRIA

Uda etorri da eta honakin batera eguraldi onak, urteroko jaialdi guztiak eta ikasleen oporrak.

Inguruko jaiak hasi ziren Iruritan, Zubietan ere beste batzuk izan ditugu. Pentekostes egunean gazta jan, ardoa edan eta Modestoren eskutik dantzatu genuen bere musika alaia. San Juan bezperan berriz, su haundi bat egin zen herriko plazan eta gazte batzuk elkartu ziren bertan afaltzeko, besta gehiago animatu nahiean. Betiko jaiak berrituz ere goxatzen ari gara aurten.

Euskaldun berriak

Aurtengo euskaldunberriei ongietorria emateko prest gaude. Oraingoan, joan den urtean baino jende guttiago etorriko da, baina seguro herritarren animoak altxatuko dituztela.



Udarekin batera, lehendabiziko bestak ospatu dituzte Zubietan

Europarako hauteskundeetan abstentzioa nagusitu zen Malerrekan

Ekainaren 12an ospatu ziren Europarako hauteskundeetan, garaile nagusia abstentzioa izan bada ere, hona hemen Malerreka inguruko emaitza nagusiak (hiru lehendabiziko alderdiei dagozkienak), herriz herri:

• **Bertizaranan,** Eak 89, Ppk 76 eta

PSOEk 53.

• **Donamarian,** Eak 54, Ppk 52 eta HBk 36.

• **Donezteben,** Eak 170, Ppk 160 eta PSOEk 79.

• **Elgorriagan,** Eak 27, HBk 22 eta Ppk 21.

• **Eratsunen,** Eak 31, Ppk 26 eta HBk 6.

• **Ezkurran,** Ppk 42, PSOEk 24 eta Eak 17.

• **Iturenen,** HBk 93, Eak 90 eta PSOEk 22.

• **Oitzen,** Eak 33, HBk 25 eta Ppk 6.

• **Saldiasen,** Eak 24, HBk 17 eta Ppk 12.

• **Sunbillan,** Eak 125, Ppk 56 eta HBk 51.

• **Urrotzen,** Ppk 44, HBk 15 eta Eak 10.

• **Zubietan,** HBk 55, Eak 32 eta Ppk 16.

Urrotzko saneamendu lanak akitu dira

TXEMA URROTZ

Akitu berriak dira ur ekartze eta saneamendu lanak. Herriaren alde batean egin dira lan horiek eta oraindik egin gabe gelditzen zen puska bat ere losakin ederki paratu dute; horrela herriko karrika guztiak losaz eginak gelditzen dira.

Bi hilabete pasatxo behar izan ditu Sasoi eskabazio enpresak lan horiek egiteko.

Nafarroako

Itzuliaren etapa bat Urrotzen burutu zen, Leurtzako urtegiaren bukatzen baitzen Donezteben hasitako kronoigoera. Malda ederrak direla denok badakigu, baino ia kotxez bezain abudo ibili ziren. Zenbaitzuk 26 minutu nahiko izan baitzituzten goitiraino ailegatzeko.



EKIPAL

Komertziorako mobleen fabrika

Kalitate eta prezioaren arteko orekarik boherena

Edozein klasetako komertzioa duzula, ekipatzeko behar dituzun moble guzti guztiak guk fabrikatuko dizkizugu

Lantegia, almazena eta erakusketa:

Bekolanda auzoa • 514225 • Faxa: 514271 • GOIZUETA



Musika Eskolan izena emateko epea zabalik dago

Sokatira taldeak Nafarroako bigarren mailako sokatira txapelketa eskuratu du 600 kilotan

ESTEBAN AROZENA

Datorren urtean Udal Musika Eskolan ikasi nahi dutenentzat epea zabaldu da dagoeneko, eta horretarako udaletxera joaneta izena ematea nahikoa dute.

Bukatu berria den ikasturteari buruz esan, 7-14 urte bitarteko 20 solfeo ikasle izan dituela eskolak. Hauetatik zazpi solfeoaz gain piano iksaketak burutu dituzte, eta bostek txistu ikasketak.

Musika Eskola hau haur edo gaztetxoei mugatua dagoela uste badute ere askok, esan behar da, edozein adineko pertsonak izena eman dezakeelabertan.

❖ **Sokatira** zaleek jasandajo nahigabeen



Sokatira taldeak ustekabearen irabazi zuen 600 kiloko txapela

berri ematen bagenuen ere azken alean, hama-bost egunetan gauzak erabat aldatu dira eta oraingoan pozak agertu beharrean aurkitzen gara.

Ekainaren 18an jotzen zen Iruñeko Errotxapean 600 kilotan Nafarroako bigarren mailako finala, eta goizuetarrak faboritoak ez izan arren, arratsal-

de borobil bat osatu zuten, aipaturiko txapela lortuz. Ez da esan beharrik nolako poza eta ilusioa sortu duen garaipenak tiratzaile eta zaltetuen artean.

❖ **TVE-2** behar bezala ikus ahal izateko herritar askok dituzten arazoak jakinak dira. Teknikoek diotenez, Jaizkibelek datorren Antena-3 kateak eta Olasotik hartzen dugun TVE-2ak frekuentzia berean emititzen dute eta horrek interferentziak sortzen ditu, 2. katea ikustea galeraziz. Udalak dioenez, Nafarroako Gobernura zuzendu da behin baino gehiagotan honen berri emanez, baina beti erantzun berdina jasotzen omen du, hau da, Retevisión dela antena eta errepetidorren arduraduna eta enpresak ongi dakiela Goizuetako egoeraren berri, konponbide bat askotan eskatu zaiolarik.

Bazkideen Eguna ospatu zuten Larrea elkarteak

Mus, toka eta bote txapelketak jokatu ziren

JUANA M^a SAIZAR

Larrea elkarteak bazkideen eguna ospatu zuen ekainaren 12an. Larunbat gauean mus txapelketa batekin eman zion hasiera eta irabazleak Antonio eta Luis Mari izan ziren. Igandean, meza aurten hildako bazkideen alde, bazkaria eta arratsaldean toka eta bote lehiaketa. Hauetan garaile Antton Marzol eta Joxe Onsalo.



Larrea elkarteak hainbat ekitaldi egiten dira urtean zehar

ttipi-flash

❖ **San Miguelek** urteroko bisita egin zuen eta herriaren sarreran bi gaztek aureskua dantzatu zioten ongietorria emanez.

❖ **Sokatira** taldeak emaitza oso onak lortu ditu. Leitzan 600 kiloko finalean hirugarren eta Lesakan, 560 kilotan bigarren.

❖ **Herri sarrerako** karretera zabaltzen hasiak dira dagoeneko eta lau hila-bete inguru iraungo dute obrak.



M^a Asuncion Loiarte irakaslea jubilatzerakoan omendu zuten

Joanabordako karobia pizten saiatuko da berriz ere Joxe Sagastibeltza

JOSEBA AZPIROZ

M^a Asuncion Lasarte San Martin, eskolako irakaslea jubilatuta da, hamabost urtez eskolako irakaslea izan ondoren. Hori dela eta, eskolan omenalditxo bat egin zioten, San Juan bezperan, trikitalari, bertsolari eta dantzariekin. Hasieran goi mailakoei euskara irakasten bazien ere, urte gehienetan lehen eta bigarren mailako umeekin aritu da. Nork famatua ere badauka Asuncionez, bere sei seme-alabetatik bost irakasleak baitira.

Joanabordako karobia...

itzaliegintza behar izan zuen Joxe Sagastibeltzak. Jakingo duzue, Joxek karea egiteko asmoz karobia piztu zuen, baina ekarritako harriek burnia zuten, itzali behar izan du, zepak egin eta pareteetan itxasten zirelako. Halere, Joxek ez du etsi,



Oialdetik Banco Centralerako bidean etorbidea eraikitzea erabaki du udalak

garai bateko ohitura zahar hau berreskuratzeko asmotan, harri berria ekarri eta berriz saiatzeko asmoa baitu. Joxe Sagastibeltzak aipatzen duenez, garai batean 75 karobi inguru izango ziren Leitza eta zenbait baserrietan bi bazeuden.

Etorbidea Oialdetik Banco Centralera

Gorabehera franko izan ondoren, azkenean Oialdetik Banco Centralera etorbide bat egingo da, udalak hartutako erabakiaren arabera. Aukera etorbidea edo espalo

tuagoaren artean egin beharra zegoen eta erabakia kotxeek aparkatzeko lekuak baldintzatzen zuen. Etorbidean banku eta zuhaitzak jarriko dira, erosoagoa izan dadin.


ttipi-flash

Karrape

irratiko zozketa eta txapelketak: 'Giro'ko txapelketa Isabel Zabaletak irabazi zuen. Saria, bi lagunentzako afari bat zen. Bizikleta berriz, Telesfora Caballerori tokatu zitzaion zozketan.

Europako hauteskundeak

Ekainaren 12ko hauteskundeetan, beste herrietan bezala abstentzioa izan zen nagusi. Gainerakoan, alderdi nagusi guztiak botoak galdu zituzten. Boto gehien jaso zituen Herri Batasuna izan zen (521), Eusko Alkartasuna izan zen bigarrena (303), UPNk 239 botu eskuratu zituen eta PSOEk 85. Beste alderdi guzientzako 148 botu jaso zituzten.



PRODUKTORA

510526
LEITZA

Ezkontza argazkiak, bideoak, komunikazioak, urtebetetzeak, jaialdiak, kirolak, musikaldiak, ospakizunak, erreportai bereziak, bideo klipak, telefilmak...
Kalitatez eta merke eginak
Hona non duzun aukera !!!

GAZTELU ITURGINTZA

KALEFAKZIOA

Elgoien 32 • Tfnoa: 510086 • LEITZA

ttipi-ttapa

5.700 harpidedun
20.000 irakurle



Nafarroako Jaialdiak Baztanen izanen dira aurten

Udalak eskerrak eman dizkio Nafarroako Gobernuari, orain arteko kultur politika aldatzeagatik

J. IGARABIDE

Ekainaren 21ean izan ziren Principe de Viana-koak Elizondoko Kultur Etxean, Baztanen izanen diren ekitaldien aurkezpena egiten. Jaialdien filosofia aldatu omen dute, aurrekontuak laburtuz eta lehenago joaten ez ziren eskualdetarat eramanez jaialdiak. Honek haserre haundia sortu du Olite aldean, baina antolatzaileek erran dutenez, ez omen dute presiorik izan al daketa honetarako.

Aurten, Kiko Veneño, Carmen Larunbe dantzariaren 'Tangos y boleros', Mariadel Mar Bonet folk abeslaria, 'Antonio y los ballets españoles', Saint Michel 'maskarada', eta Els Joglars antzerki taldea izanen dira ikus eta entzungai. Ekitaldietarako, 1.200 pertsonarako karpa bat izanen da eta sarrerak 1.000 pezetatán.



Domingo Etxandi erratzuarrak parte hartuko du artisauen gidan

Azpilkuetan ere Sanferminak ospatuko dituzte

Uztailaren 6an, eguerdiko 12etan botako den txupinazoarekin hasiko dira aurtengo sanfermin bestak Azpilkuetan. Arratsean ezkil-jotzea, afaria elkartean eta dantzaldia Joxe Angelekin. **Sanfermin** egunean, mezaren ondotik luntxa izanen da. 4etan mus txapelketa izanen da eta musika Modestoren eskutik.

Ortzilerian (8), goizeko 8etan zikeroaren su-piztea izanen da. 9,30etan gosaria eta egurdian zikero-jatea. Arratsaldean eta gauez Joxe Angel. Tartean afaria elkartean.

Larunbatean (9), 10etan argi soinuak. 11,30etan pala goma txapelketa. 5etan txokolatada eta haur jostetak haurrentzat. Arratsaldean eta gauez

'Yatagan' taldea. Goizeko 6etan zinger-jatea.

Igandean (10), argi soinuak. 11,30etan meza nagusia. Egurditan soinua 'Iparralde' taldearekin. 5etan paleta goma txapelketaren finala. Arratsaldean eta gauez dantzaldia 'Iparralde' rekin. 8,30etan Erramun Martikorena. Goizaldean 'Pobre de mí'.

ttipi-flash

Arizkungo

I. txirrindulari saria burutu zen ekainaren 26an, Club Ciclista Baztandarrak antolatuta.


Arraiozko

alkateak Legateko pista moldatzea eskatu du. Eraberean, alkate honek saihe-sbide edo bariantea lehenbaitlehen egitea eskatu du berriz. Bere erranetan, N-121-B errepideak Arraioz erditik pasatzean arrisku haundia sortzen du.

Udal liburutegiaren

kategoria aldatzea eskatu du udalak, liburutegiko ardura-dunekin bat eginez. 5.000 biztanle baino gehiagoko herrietan liburutegiak egun osorako zerbitzua eskeini behar dute eta Baztanen ez da horrelakorik.

LARRALDEA



SAGARDOTEGIA

Asteartetik ortziralerara 8etatik antzinerara
Larunbat eta jaiegunetan zabalik

© 452121 • LEKAROZ

ARROPA DENDA



CERVANTES

HELVETIA SEGUROS



Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia

ERLOJU eta BITXI DENDA



ARRIETA

KIROL TROFEOAK

Tfnoa.: 580 445 - ELIZONDO



BAZTAN FUNERARIA

HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA
SALMENTA • TRASLADOAK
Jaime Urrutia 53 ELIZONDO
Tfnoak: 580924-580814-580373



JATETXEA

Tfnoa.: 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galarza

Gazteen konfirmazioa ospatu zen Aniz eta Almandozen

Anizko bederatzik eta Almandozko hamabik egin zuten

PABLO MENDIBURU

Joan den igandean, Anizko 9 gazte eta Almandozko 12 konfirmatu ziren beraien herrietan. Bi herrietako apez Ramon Apeztexea da, eta azken urte hauetan ezizatean, urte ezberdinetako gazteek egin dute konfirmazioa. Almandozen meza ondotik hameketakoa izan zuten, eta gazteak baita afaria egin ere.

❖ **Basaburuako** herri kirol taldea hor barrena ibili da aurtengo sokatira txapelketan parte hartzen. 640 kilotako hirugarren postuan gelditu ziren eta Leitzan jokaturako 600 kilotako txapelketan laugarrenak.

❖ **Anizko** frontoia-
ren estaltze lanak bukatu dira eta bertan ospatu zen ekainaren



Irurritako Aranabia II. paleta txapelketan Estanga eta Retegi izan ziren txapeldunak, finalean Etxegoein eta Pierolari irabazi ondotik. Hirugarrenak Gerra eta Txoperena izan ziren eta laugarrenak, Anso eta Pernaute. Guztira 14 bikotek parte hartu dute aurtengo edizioan.

1 In sokatirako 600 kilotako txapelketaren kanporaketa.

❖ **Zigan** telebista errepitidorera doaien pistaren moldatze lanak

bukatu dira. 40 milioi baino gehiago gastatu den pista honetan, zaborra eta gainetik zementua bota dute hiru kilometrotan.

❖ **San Juan** suak egiteko ohitura oraindik badago Basaburuako lau herrietan. Nahiz eta haur gutti izan, San Juan bezperan

74 milioi pezetako laguntza saneamendu lanetarako

Nafarroako Gobernua 74,1 milioi pezetako dirulaguntza eman du Baztango zenbait herrietako ur saneamendu lanak egiteko.

Elbete, Elizondo, Irurita eta Irurritako saneamendu sarea berritzeko erabiliko da dirutza horren zati bat. Bertzea, Aintzano, Ariztegi, Gartzain, Lekaroz eta Elizondoko Mendinueta karrikako hornidura eta saneamendu sareak berritzeko erabiliko da. Hirurteko Plangintzan sartu diren lan hauek 114 milioi pezetako gastua izanen dute osotara.

Ziga eta Berroetako plazan, Almandozko harrobietan eta Anizko Jauregia etxearen hurbilean, denak elkartzeko dira saltoka aritzeko.

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

BERA ☎ 630735 • IRUN ☎ (943) 622305



MENDIALDE Jatetxea



Etxeko gasnak saltzen ditugu

Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan

AMAIUR Tfnoa: 45 30 60



FOTO ZALDUA

ZURE EZKONTZARAKO

FOTO eta BIDEO
Erreportai on bat

ELIZONDO ☎ 580491
DONEZTEBE ☎ 450364

MARKOEN TAILERRA eta zure
karreteak ORDU BATEZ REBELATZEN
DITUGU "FUJI" kalitatearekin.



AKORDEOIAREN
GOI-MAILAKO
AKADEMIA

Angel Manuel Belio

AKORDEOIAK SALDU ETA ALKILATZEN DITUGU

DOMINÉNEA Etxea
San Andres karrika, 40 - NARBARTE

☎ 943 - 61 50 55

OSKORRI LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRI

MENDI OSTATUA

Santiago 25 - ☎ 580313
ELIZONDO

SARA

Pala antxa lehiaketa Polikiroldegian jokatu da

Joan den urtean bezala, Philippe Garbiso eta Serge Bats izanen dira ekitaldi hunen bultzatzaile nagusiak

MIXEL ETA JACQUELINE

Iazko pala antxa lehiaketak ukan zuen arrakastaren ondorioz, aurtun ere herriko bi gaztek, Philippe Garbiso eta Serge Bats hain zuzen, antolatu dute zoin gehiagoka hori.

Izenak lehenbaitlehen eman behar dira, ahal bada uztaila aitzin, zenbaki hauetarik baterat deituz:

59542189 (Philippe Garbiso) edo 59542357 (Serge Bats).

Joan den urtean 29 bikotek eman zuten izena eta hauek izan ziren xapeldunak: 1. mailan Joset Olaso eta Iñaki St. Martin, 2. mailan Francis Petin eta Patrick Perugorria eta 3. mailan Walter Ferlin eta Patrick Perugorria.



Saratarrak xapeldun Berako 'rugby-7' jokoan

Berako Pui ostatuak, bertze zenbait merkatal etxeekin batera antolatutako 'rugby-7' lehiaketa huntan zazpi

taldek parte hartu dute: Bera, Sara, Donostiako Bera-Bera, Biriatsu, Irun, Arrasate eta Burgos.

Finala ekainaren 11an jokatu zen eta Sarako Basurdeek ereman zuten, Irun garraituz lau entsegu eta bi

markarekin.

Trofeo eder batek arri daukute eta denen izenean eskertzen ditugu.

HERRIKO ETXKO EDANTEGI

Michel eta Kattin
Guendiaín

Tfnoa: 59 54 25 19
64310 SARA



FM
FOTO
MENA
ELIZONDO

Ezkontzetako erreportaiak
argazkiak eta bideoa

MARKOAK eta MOLDURAK

Eta orain, **DONEZTEBEN** ere

Tfnoa.: 45 0825 • Nagusia 4 • **DONEZTEBE**

Tfnoa.: 58 01 55 • Santiago 40 • **ELIZONDO**



ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

Zaldubia Poligonoa • ☎ 580562
IRURITA - BAZTAN

SUKALDE ETA
BAINU MOBLEAK

Egoki-ren banatzaile
baimendua



Urdazubi

Eskolako kurtsoa besta batekin bukatu zen ekainaren 24ean

Zortzigarren maila zazpi ikaslek bukatu dute aurtengoan

ALIZIA OLAIZOLA

Ekainaren 24a aktibitate berezietan betetako eguna izan zen eskolako haurrentzat, kurtsoari bukaera on bat emateko.

Goizean ikasleek prestatutako antzerkiak eta aunitz aktibitate gehiago izan zituzten. Eguna ongi bukatzeko, herriko plazan bazkaria eta ondoren dantzaldia herriko akordiolari batzuekin, Arantxa Soubelet eta Elisabet Bengoetxearekin. Zortzigarren maila bukatu dutenak 7 izan dira: Silvia Olaizola, Yolanda Irigoien, Iratxe Ariztia, Angel Carrón, Micaela Ainzia, Juan Miguel Bidart eta Joseba Irazoki. Hiru azken hauek Zugarramurdikoak dira.

Zikiro-jatea

San Juan arratsean gazteek zikiro-jate bat antolatu zuten bere artean. Herriko plazan,



Kurtso bukaeran bidaiak egin dituzte eskolako haurrek

hogeitamazazpi lagun bildu ziren. Zugarramurdiko Aetxondotako Joxe Angel Olaizola izan zen zikiro erretzailea eta arras ongi prestatu zuen. Gaueko 9,30etan hasi ziren afaltzen giro ederrean. Gauerdia alderat animazio haundiarekin eta urteko gaurik motzena ongi bukatzeko Arizkongo bestetarat joan ziren gazte gehienak.

Inoiz baino jendetza haundiagoa bildu zen aurtengo Zugarramurdiko gaupasan

Aurtengo gaupasa izugarritzko arrakasta izan du. Larunbat gauean eguraldia sobera ona izan ez bazen ere jendeketa haundia hurbildu zen lezeetako akelarrea ezagutu asmoz. Kottxeak aparkatzeko ere nahiko lan izan zen,

baina pazientzia pixko batekin eta umore onarekin, denak leku-tu ahal izan ziren.

Leze barnean giro polita eta berexia izan zen. Hori bai, jendea gero eta urrutia gotik heldu dela nabari da, euskara gero eta guttiago aditzen baita.

♦ **Hauteskundeak** izan ziren ekainaren 12an. Herri guztietan alderdi haundiak borrokan ari ziren bitartean Zugarramurdin Ehiztari eta arrantzaleen alderdiak irabazi zuen 45 boturekin. PPK 35 eta HBk 26 eskuratu zituzten.



Eztegara 19 - ☎ 63 02 40 BERA

MOLINERO PINTURAK

Etxe barneko hezetasan eta kondentsazio problemak moldatuko dizkizugu eta gainera, barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoen arabera prezioetan.

ttipi-ttapa
hamabostekaria

5.700 harpidedun
20.000 irakurle

EZKONTZAK

Jose Ramon Intxausti Beristain eta **M^a Angeles Lasarte Baraibar**, Leitzakoak, apirilaren 30ean.

Jose M^a Hernandorena Largo eta **Miren Maddalen Lazkano Zabaleta**, Leitzakoak, maiatzaren 12an.

Alberto Latasa Mitxeo eta **Maite Berasategi Mikelperizena**, Iruña eta Berakoa, maiatzaren 13an.

Miguel Angel Lanz Fagoaga eta **M^a Carmen Urtxegi Iñargi**, Lesaka eta Berakoa, maiatzaren 14an.

Juanjo Urrutia Juanenea eta **Andone Briondos Garcia**, Saldias eta Zubietakoa, ekainaren 11n.

Iñaki Etxeberria Mendigutxia eta **Kontxi Aranguren**, Igantzi eta Irungoa, ekainaren 11n.

Faustino Maisterrena Hugalde eta **M^a Elisa Larregi Etulain**, Amaiu eta Arizkungoa, maiatzaren 28an.

Jesus Elizegi Goñi eta **Amaia Saharrea Arregi**, Gartzain eta Iuritakoa, ekainaren 4an.

Victor Urrutia Berrio eta **M^a Felisa Urrutia Jimenez**, Irurita eta Iruñeakoa, ekainaren 4an.

JAIoTZAK

Garazi Erbiti Goienetxe, Leitzakoa, ekainaren 3an.

Julen Ceballos Irujo, Leitzakoa, ekainaren 3an.

Aitana Zabaleta Unanua, Leitzakoa, ekainaren 7an.

Jose Gabriel Igoa Otxoteko, Lesakakoa, ekainaren 3an.

Edurne Marin Ameztai, Lesakakoa, ekainaren 11n.

Jaione Agerre Etxalar, Almandozkoa, maiatzaren 18an.

M^a Jose Agerrebere Arraztoa, Iuritakoa, maiatzaren 19an.

Oihan Garrido Lopez, Arizkungoa, maiatzaren 19an.

HERIOTZAK

M^a Luisa Iribarren Etxenike, Etxalarkoa, martxoaren 18an, 89 urte.

Marguerite Ithurria Mitxelena, Sarakoa, erearoaren 8an, 69 urte.

Amparo Oteiza Oteiza, Legasakoa, ekainaren 20an, 93 urte.

Pilar Iturbide Ordoki, Igantzakoa, ekainaren 16an, 80 urte.

Juan Lorenzo Oharriz Subizar, Oronozkoa, ekainaren 3an, 92 urte.

Petra Eustaquia Jaimerena Dendarieta, Arizkungoa, ekainaren 6an, 87 urte.

Juana Paula Aleman Igoa, Arraioztzen, ekainaren 7an, 80 urte.

Maria Peña Arnaiz, Elizondon, ekainaren 10ean, 89 urte.

Alejandro Iribarren Elizagoien, Elizondon, ekainaren 16an, 83 urte.

Ana Arregi Telleria, Elizondon, ekainaren 17an, 81 urte.

SAN MARTIN LANBIDE ESKOLA

Tfnoa: 59 20 06 – Oronotz-Mugairi



INGELES IKASTAROA UZTAILAN

Bertze urtetan bezala, aurtien ere, ingeles ikastaroa uztailaren 4etik 29ra goizez 9,15etatik 13,45 orduetara irakasle "natiboekin".

Apuntatzeko deitu 592006 Tfnoa

BEHARREZKO TELEFONOAK



SOS Nafarroa eta

Urgentziak 088/061

Osasun Zentruak

Elizondo 452367 / 580235

Doneztebe 450300

Lesaka 637428 / 637336

Leitza 510248 / 510573

Nafarroako Ospitaleak

Nafarroako ospitalea ... 102100

SSko urgentzi

zerbitzua 246750

Virgen del Camino

erresidentzia 109400

Gurutze Gorria 226404

Gipuzkoako Ospitaleak

Irungo ospitalea 614600

Gipuzkoako ospitala ... 460299

Erresidentzia 453800

Anbulatorioak

Irun 630264/621106

Anbulantziak

Oitz 450242/450342

DYA

Lesaka

(larrialdiak) (943) 464622

Doneztebe

(larrialdiak) 171717

FUNERARIA

Doneztebe 637404

Elizondo 580924

Lesaka 637404

Suhiltzaileak

Oronotz-Mugaire 592255

Garraioak

Bidasotarra 631150

Baztanesa 580129

Leitzaran 515018

Aberiak:

Iberduero 450335/450336

ARI GARELA, ARI GARELA ELKAR EZAGUTZEN



Aski ongi oroitzen gara, bai! Hain ederki pasatu genuen! Txalupaz, funikularrez, trenez ibili ondotik bokadilo goxoa 'mauka-mauka' jan eta bidenabar motxila arindu.

Aterpera ailegatu eta... logelen banaketa! Beharrik otordu ederrak prestatu zizkiguten; bertzenaz

nola egin Oriotik Zarautzerako bidea oinez? Ilunabarrean kitarraren doinuz eta euskal kantez horniturik amets xamurrei bidea eginez joan zitzaizkigun egunak

Eta heldu den urtean, non elkartuko ote gara?

📝 (Bortzirietako ikasleak)

Nafarroa Oinez-eko kanta aurkeztu zuten ekainaren 23an

Nafarroa Oinez 94ko kantu ofiziala biltzen duen singlea ekainaren 23an aurkeztu zuten Irungo Bertso-Hop dendan.

'Izokin euskaldun baten istorioa' kanta Negu Gorriak egina da eta hitzak, Fermin Muguruza eta Joxan Oizen artean molda-

tuak. B aldean Labiaga ikastolako haur, guraso, irakasle eta ikasle ohiek idatzi, jo eta abestutako 'Ikastolarekin bat' kantua entzuten ahal da. Abesti honetako musika Begoña Rudi irakasleak egina da. LPak 13 kantu bilduko ditu eta 1.200 pezetetan salgai dago.



zimeldi

ALTZARIGILEA

▲ Kolorea gustatzen zaizu? sar ezazu kolore pixka bat zure etxean altzari tintatuak egiten ditut

Deitu eta neurriak hartuko dizkizut

© 387017 • ETXALAR

LESAKAKO
ZUBIA

N-121-A

ZUMELDI

ETXALARKO
BENTA

TRAFFIC

GIZONEZKOEN MODA

Negozia ixten dugula eta, **LKIDAZO OSOA**

IRUNgo LUIS MARIANON


Ezkurra eta Etxeberria doneztebarrak bikain erremonte 'izarren' txapelketan

Atzelaria jokalaria onena izendatu dute eta erremontearen etorkizuna aurrelari gaztean omen dago aditu guztien ustez

Patxi Etxeberria eta Koteto Ezkurra doneztebarrak osatzen duten bikoteak ikaragarritzko maila eman du aurtengo Euskadiko erremonte 'izarren' txapelketan.

Finaleko lehendabiziko partiduan, 40-26 irabazi zieten Matxin eta Aizpururi Galarretan. Larunbat honetan, Euskal Jai pilotalekuan jokatu behar zuten, baina idazterakoan ez dugu emaitzaren berri. Halere, lehen partiduan abantaila dexentea hartu zutela kontutan hartuz, ordu hauetan txapeldunak izanen ditugu seguraski.

Galarretako partidura Doneztebe erdia agertu zen eta arras gustora gelditu ziren herritarren jokuekin. Izan ere, Ezkurrak berak nahi duen tokian kokatzen du pilota eta etorkizuneko pilotaria da aditu guztien ustez. Etxeberria berriz, gero eta ziurtasun haundia-



Patxi Etxeberria, lehen faseko erremontelari onena izendatu zuten

goa ematen du gibelaldean eta tantua dominatzen du gehienetan. Badirudi bigarren gaz-

taroan sartua dela eta berak adieraz duenez, "horren sekretua lan eta lan egitean dago".

Aurtengo sokatira txapelketak bukatu dira

Ekainaren 18an eta 19an Leitza, Errotxapea eta Lesakan jokatuak lau finalekin bukatu da aurtengoz, sokatira denboraldia.

Leitzan, lehen mailako 600 kiloko finala jokatu zen. Bertan, Amaiur izan zen txapelduna, Lesaka, Areso eta Basaburuaren aitzinetik. Larraun eta Berriozar ez ziren azken tiraldietarako klasifikatu.

Errotxapean neska eta mutilak aritu ziren. Neskak 480 kilotan lehiatu ziren eta ustegabekorik gabe, Berako Gure Txokoak lortu zuen txapela, bigarren Berriozar eta hirugarren Larraungo taldea gelditu zen. Mutiletan, bigarren mailako 600 kilotako txapela zegoen jokoa. Finalean, Etxauriko Arana eta


Goizueta aritu ziren norgehiagokan eta azkenean, amaigabea zirudien tiraldian (bi tiraldinulo egin zuten), goizuetarrak irabazi eta txapela eskuratu zuten.

Azkenik igandean Lesakan 560 kilotako final nagusia jokatu zen. Neurketa honetako finalistak Lesakako Beti Gazte eta Areso izan ziren. Aresokoak oso gogor aritu baziren ere, azkenean lesakarrak suertatu ziren garaile.

Modu honetara, Lesakak aurtengo jokoan zeuden lau txapel nagusietatik hiru lortu ditu eta Amaiurrek bertzea. Aipagarria da Amaiurrek Euskalerriko txapela jaso zuela 640 kilotan eta Aresok urte honetan izan duen gorakada.

UDAN EGIN GOGOR EUSKARARI

**4 ORDUKO
IKASTAROAK**



**MAILA
GUZTIAK**


3.-4.-5.-6.-7.-8.-9.
EGA

Lesaka, Etxalar, Arantza, Doneztebe eta Leitza

Tfnoa: 637796 / 627513



4 ERAKUSKETA ZURE ONDOAN



*Sukaldea-Bainua
Armario enpotratuak*



Senar-emazteen logela



Egongela



Gazteendako gela



ASTELEHENETIK LARUNBATERA IREKITZEN DUGU.
GOIZ ARRATSALDEZ
Bidasoa karrika 45-60 • ☎ 630537 • BERA

AGENDA EGUNEZ EGUN

KONTZERTUAK LESAKA

Uztailaren 6an

Gaueko 12etan reggae kontzertua 'Filao' taldearekin Plazan.

Uztailaren 8an

Gaueko 11etan kontzertua Amets Gaizto, Gutariko Bat eta Noise Hole taldeekin.

KANTALDIAK

AZPILKUETA

Uztailaren 10ean

Arratsaldeko 8,30etan, Erramun Martikorenak kantaldia eskeiniko du Azpilketako Plazan.

GUARDIAKO BOTIKAK

Ekainaren 27tik

uztailaren 3ra Bera, Ituren, Elizondo (J. Iturralde), Goizueta

Uztailaren 4tik

10ra Arantza, Doneztebe, Irurita, Goizueta, Leitza

Uztailaren 11tik

17ra Etxalar, Narbarre, Elizondo (F. Lezaun), Goizueta

AGENDA PRAKTIKOA

ERREZETA



Arrain pastela

Osagaiak

- 1 kg. legatza edo apoa • 6 arraultze • 2 arraultze xurongo elur punttuan • litro 1/4 esne gain • 250 gr. tomate paxitua • ganba txikituak

Prestatzeko manera

Arraina, gatza eta barazki

batzurekin egosi. Hozten denean xehetu. Ontzi batean arraultzeak, tomateak, esne gaina, ganba txikituak, bi xurongoak eta arraina ongi nahasi. Gatza puntua probatu. Gurina eta ogi birrin-duarekin igurtzitako molde batean jarri osagai guztiak.

Labe beroan, 'baño marian' jarri moldeak eta utzi berrogei bat



Mari Jose
PORTU
Irubide
Jatetxea
• Lesaka •

minutu, moldearen arabera. Hoztu denean moldetik atera eta adornatzeko saltsa arrosa bota eta kaviar ordekoko gainetik.

On egin!

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- Zerrikumea (20 kilokoak): 5.100 pzta.
- Zerri gizena (95-100): 178 pzta./kilo
- Zerramak: 115 pzta./kilo bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

- Aretze gizenak:
- Idixkoak: Pzta/kg. Kanakal
- Extra 620-630
- 1.koa 580-600
- 2.koa 550-570

Urruxak: Pzta/Kg. Kanakal

- Extra 630-640
- 1.koa 590-610
- 2.koa 560-580
- Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

• Aretze tikiak

(15 egun ingurukoak): Nabarrak: urruxak 25.000 eta idixkoak 37.000 Pzta.

Mestizoak: urruxak 39.000 eta idixkoak 50.000 pzta.

• Behi zaharrak:

Behi nabar gizona: 4300 Pzta./Kg. Kanakal. Behi gorri ona: 490 Pzta./Kg. Kanakal.

DATU-ITURRIAK: EHNE, ZUBIRIA MINDEGIAK, KIWI BAZTAN...



❖ FRUTONDOAK ❖

- Hiru urteko landare bakoitza
- Bertako sagarrondoa 930.
- Udareondoa 930 pta.
- Gereziondoa 1.050 pta.



❖ BARAZKIAK ❖

- Piper txorizero zientoa 800.
- Piper morro zientoa 800.
- Piperminak zientoa 600.
- Valentziar tipula zient. 250.
- Letxuga zientoa 400 pta.
- Azelga zientoa 400 pta.
- Pepino sorta 25 pta.

ETXANDI TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta
gosariak

ITUREN
Tfnua: 45 04 91



SANTAMARIA

Jatetxea


Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

❖ Zure ingurua klase guztiko inoktuz (xomorro, zinaurre, armiarna, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz!

BERA
DESINFECCIONES

☎ 63 01 55
BERA



Kutsidazu bidea, Ixabel

Josean Sagastizabal
Irun, Alberdania 1994
109 orrialde

Barre egiteko modurik onena nork bere buruari barre egitea pentsatuko zuen Sagastizabalek elaberri arin eta barregarri hau egitean.

Juanma antiheroi hiritarrak euskara ikasteko nahiean Harrialde herrixa erruralean bizi izandako abenturak eta desbenturak kontatu dizkigu jardueraz euskara irakasle den idazle honek.

Oso estilo bizi eta zuzenean idatzia. Benetan lan irakurterraza eta gomen-dagarria.

Azken liburuak

Ipuin bakarrak

Xabier Mendiguren
Donostia, Elkar 1994
201 orrialde.

Tene lehiaketa

Debako Udala
Donostia, Elkar 1994
89 orrialde.

Euskal girotze barnetegiak

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Gasteiz, 1993
385 orrialde.

Euskal ipuinen antologia bat

Iñaki Aldekoa
Irun, Alberdania 1993
195 orrialde.


Sudur puntan mundua

Juan Garzia Garmendia
Irun, Alberdania 1994
62 orrialde
(Antonio M^o Labaien 1994 saria)

Negarrik ez, haurra

Ngugi wa Thiong'o
Tafalla, Txalaparta 1994
182 orrialde

Liburuak eskuratzeko Bera, Doneztebe, Elizondo, Leitza eta Lesakako liburuetara joaten ahal zarete.



Auto-stopeko ipuinak

Pako Aristi
Donostia, Erein 1994
203 orrialde

Hogeita hameka ipuin labur bildu ditu Pako Aristik azken liburu honetan. Gaiak ugariak dira eta guztiak bizitzatik hartuak; hala ere, sailkatzekotan, hirutan sailka daitezke: musika, sexua eta gizon-emakumeen arteko harremanak.

Ipuin hauetan mota askotako jendea ikusten da: kamiozaleak, ikasleak, putak, langabeziak, Cubatik ihes egin nahi dutenak...

Azken finean, gizarteko oso pertsonai desberdinen sentimenduen bilduma da kontakizun guztien emaitza.

AGENDA EGUNEZ EGUN

BESTAK

LESAKA

► **Uztailaren 6tik 10era.** Ikus xehetasunak aparteko gehigarrian.

AZPILKUETA

► **Uztailaren 6tik 10era.** Ikus xehetasunak 20. orrialdean.

BERTSO SAIOAK

LESAKA

► **Uztailaren 8an** arratseko 11etan udal pilotalekuan Andoni Egaña, Bittor Elizagoien, Xebastian Lizaso, Unai Iturriaga, Maddalen Lujanbio eta Jon Sarasua. Gai-jartzailea: Manolo Arozena. Antolatzailea: Arrano Elkarte eta Laguntzailea Lesakako Udala.

MAGNETISTA - NATUROPATA ZURE BEGIAK ZAINTZEN DITU

✌ BISTAREN ERREKUPERAZIOA

- Begi alferrak, estrabismoa, kataratak, retinosia, begietako neuritisa, begietako infekzioak, konjuntibitia, miopia, hipermetropia.

✌ REHABILITAZIOA

- Artrosia, Artritis erreumatoidea, bihurturak, lunbalgiak, zerbikalgiak, psoriasis, diabetea, azaleko alergia, zizareak, oinetako izerdiak, birusak, asma, buruko minak, kolesterola, erreuma, prostata

Kontsulta Ordutegia: Arratsaldeko 2etatik 10etara (Ordua eskatu)
San Marcial 7 - 4. - IRUN ☎ (943) 62 30 55

EUSKARA

IKASTAROAK

► **Uda osoan** IKAk antolatuak, lau orduko ikastaroak Lesaka, Etxalar, Arantza, Doneztebe eta Leitza. Maila guztiak.

ZURE IRAGARKIAK HEMEN AGERTZEKO DEITU (9) 48 - 63 11 88  ra

ETXEBIZITZAK

ZIZUR NAGUSIA. Herrian 71 m²ko pisua salgai. 3 gela, sukaldea eta bainugela. Eguzkitsua. 7.500.000 pezeta.  183165 (bazkalordutan).

DENETARIK

Borda bat erosiko nuke.  451600.

Logela baten bila nabil Iruñaldean.  170151 (Amaia, goizez).

BERA. Gela alokatuko nuke, ahal bada bakarrik bizi den emakumeren baten etxean. Ni ama bat naiz eta alaba txikia dut nirekin.  631049 (gauetz).

Lesakan San Fermine-tako pisu bat alkatatu nahi dugu. Berdin da egoera eta ongi zaindua izanen da.  (943)554687 (gauetan).

Sukaldeko armarioak (paretan zintzilikatze-koak) eta mahai eder bat (paretan biltzen den horietakoa) salgai prezio onean.  592157.

Panasonic KX-P1180 ordenagailuarentzako inpresora matritziala salgai (9 orratz). Oso gutxi erabilia. 25.000 Pta..  (943) 655450 (Joseba).

Bi zoom salgai: bat Unitar MC Auto Zoom Macro, 75-300/5.6, 20.000 ptatan; bestea Exakta Makro 28-70/4, 18.000 Ptatan. Biak gutxi erabilia eta oso egoera onean..  393067, arratsalde eta gauetz.

IBILGAILUAK

Rieju MR80 motoa salgai. Matrikulatua, seguroarekin eta ia berria.  630165 (8etatik 10,30etara).

Seat Trans Furgoneta mixta salgai. 9 urtekoa, 90.000 pezetan.  510524.

Honda VF 750 F salgai. Egoera onean, extrak ditu.  452292.

Citroen Visa Stilo TRS 1.4, NA-P matrikulakoa salgai. Egoera onean.  599176 (eguerditan).

AZIENDAK

Behia eta miga bat salgai.  634133 (eguerdi eta arratsetan deitu).

Ahare bat salgai 25.000 pezetan. Bi urte eta adar motzekoa.  510204.

Bi ardi-zakurkume erregalatuko nituzke.  634674 (Arantzan).

Ahareak salgai.  450907.

Pointer arrazako zakur bat galdu da lgantzín. 7 hilabetekoa, zuri-gorria eta lepoko bat zuen.  627965.

Ardi txakurkumeak. Borondatea eskertzen da.  393067 (arratsalde edo gauetz).

LANA

Udan irakasle tituluduna Beran edo Lesakan klase partikularra emateko prest (OHO, euskara, frantsesa, REM).  630182 (Clarisa).

Neska bat prest dago haurrak edo adinekoak zaintzen edo euskarazko klase partikularrak ematen lan egiteko.  637911 (Eduarne).

Frantsesa eta ingelesa, etxean eta zure lagunekin ikasi nahi duzu? Prest nago irakastera joateko.  631049 (gauetz).

Magisteritzan diplomatuak klase partikularrak emanen lituzke Lesakan.  637095.

AGURRAK

Berroetako Nekane eta **Legasako** A.I.rentzat: biok biek bihotza urtuta daukatela elkarrengan, ez dezatela gehiago izkutatu. Doneztebeko lagunak.

Zuen laguntza behar nuke: 'Doña Perfecta', 'Los Santos Inocentes', 'La busca', 'Cronica de una muerte anunciada', 'La ternura del dragon'en lanik gordeta baldin bazu neri uzteko prest bazaudete deitu 510503ra. Eskerrikasko.

Berako Isabel Errandoneari zorionak bere urtebetetzeagatik, 65 urte ekainaren 19an. Lesakako Begoñaren partez.

Elizondoko Miren Laur-nagaray-rentzat zorionak 21. urtebetetzeagatik (ekainak 25) eta urte aunitzerakotz. Urdazubitik Aliziak.

MARTIKO

Gastronomia gustoko baduzu, MARTIKOrekin batera urrun ailegatuko zara



- Ahate gibela
- Urdaiazpikoa
- Ahate paparra
- Ahate hegala
- Ahate izterrak
- Izoki keztatua

GURE PRODUKTU GUZTIAK OSASUN
BALDINTZA ZEHATZENEGIN EGINAK DIRA

Zalain Poligonoa, Bera (Nafarroa)  (948) 63 07 00 • Fax 63 12 13

**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXAn**
zeure diruari

% 7,5

**ERRETENTZIORIK
GABE**

T.A.E.

arte emango dizugu

Pasa zaitez geure bulegoetatik

BERA • DONEZTEBE • LEITZA • LESAKA •



**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**

GORA SAN FERMIN

LESAKAR GUZIERI ZORIONAK

**ALMACENES
ETXANIZ**

- BAINUAK
- SANITARIOAK
- MOBILIARIOA
- OSAGIAK
- KORTINAK
- ALFONBRAK

- AZULEJOAK
- BALDOSAK
- GRIFERIAK
- HIDROMASAIA
- SAUNAK



GOIZEKO SETATIK

ARRATSALDEKO 7,30AK ARTE

ERAKUSKETA

JUAN ARANA 1

Tfnoa: 611767

BILTEGIAK

JUAN ARANA 3

20302 IRUN



**Lesakako Udalak besta onak opa dizkizue
Lesakar eta bisitari guztiei**

